

MINBIZIAREN KONTRAKO ESPAINIAKO

ELKARTEA:

HAUR MINBIZIAREN ETA EZOHIKO MINBIZIAREN

2017ko DEIALDIA

Helburua:

Deialdiaren helburua da ezohiko minbizien eta haur minbiziaren inguruko kalitatezko ikerkuntza sustatzea ikerketa proiektu traslazonalen bidez. Proiektuok ikertzaile nagusi baten zuzendaritzapean egingo dira, Espainian oso-osorik.

Deialdiaren ondorioetarako, ezohiko minbizitzat joko dira RARECARE zerrendan jasota daudenak (deialdian adierazten den webgunean eskura daiteke zerrenda).

Proiektuen ezaugarriak:

- Proiektuak traslazonalak izango dira, eta oinarritzko ikerketako oinarri sendoa eduki beharko dute (besteak beste oinarritzko onkologia, traslazonala eta azterlan aurreklinikoak jorratzen dituzten ikerketak).
- Ikerketa taldeen arteko lankidetzari bide eman behar zaio.
- Proiektuak 3 urtekoak izango dira.
- 300.000 euro gordin emango dira, hau da, urtean 100.000 euro gordin.

Ikertzaileen betebeharrak:

- Doktore titulua edukitzea.
- UPV/EHUrekin lotura izatea.

Bateraezintasunen erregimena:

- Laguntza hau ez da bateragarria izango AECC Zientzia Fundazioak emandako beste edozein laguntzarekin, salbu eta ez bada AECC Ideien Laguntza (Ideas Semilla modalitatea), ezta AECCren Probintzia Batzarrek emandakoekin ere, betiere indarrean badaude deialdira aurkezteko unean.
- Aurreko deialdietan laguntza eskuratu dutenek eskaera aurkeztu ahal izango dute deialdi honetara, baldin eta urtebete igaro bada aurreko laguntza bukatu zenetik deialdi hau ixten den arte.
- Pertsona batek eskaera bat aurkez dezake proiektuen deialdi batera, eta beste eskaera bat langileen deialdira. Bi laguntzak eskuratzen baditu, zenbateko txikiena duen laguntzari uko egin beharko dio, eta doktorego ondoko ikertzailea esleituriko proiektuan txertatu.
- Eskatzailea AECC Zientzia Fundazioaren laguntza bizi baten proiektu baten zuzendaria bada, deialdi honetara aurkeztu ahal izango da. Laguntzak eskuratzen baditu, zenbateko txikiena duen laguntzari uko egin beharko dio, eta doktorego ondoko ikertzailea esleituriko proiektuan txertatu.

Proiektuari egotz dakizkiokeen gastuak: Kontsultatu "Proiektuari egotz dakizkiokeen gastuak" agiria.

Eskaerak aurkezteko azken eguna:
2017ko urtarrilaren 17ko 15:00etara arte.

2017ko urtarrilaren 9a (barne)	I. Eranskina bidali behar da, proposaturiko langileen zerrendarekin. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.es helbidera bidali behar da, mezuaren gaiari "CÁNCER INFANTIL Y CÁNCER POCO FRECUENTE AECC" jarrita.
2017ko urtarrilaren 12a (barne)	Proiektuaren memoria osatua bidali behar da, Ikerketako Errektoreordetzak emaitzak zabaltzeko eta jakinarazteko planaren c) atala bete dezan. Memoria convocatorias.dgi@ehu.es helbidera bidali behar da, mezuaren gaiari "CÁNCER INFANTIL Y CÁNCER POCO FRECUENTE AECC" jarrita.
2016ko urtarrilaren 17a	ESKAERAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA.

Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaerak AECC Zientzia Fundazioaren webgunean aurkeztu behar dira:
<https://fundacioncientifica.aecc.es/login>

AECC Zientzia Fundazioarekin harremanetan jartzeko:

Tel.: 91 310 82 54

Helbide elektronikoa: fundacion.cientifica@aecc.es

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

Tel.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.es

Informazio gehiago:

<https://fundacioncientifica.aecc.es/tramites/TR0000000842>